

BALOREZKO PROPOSAMENA

Guk proposaturiko ideia hortzak modu automatikoan garbitzen dituen gailu batena da, "DENTALIN" izena izango duena.

Bezeroek gure enpresa, produktu edo zerbitzua aukeratzearen arrazoia da, eta lehiakideengandik bereizten gaituena. Gure produktuaren ondorioz hortz garbiketa modu egokiago eta errazago batean egiteko aukera izango dute bezeroek. Gainera, abantaila bat izango da gaixotasunen bat duten pertsonentzat (paraplegikoak, tetraplegikoak...).

Lehiakideengandik bereizten gaituen ezaugarriak:

- Hortzen garbiketa azkarragoa eta sakonagoa.
- Ur-kontsumoan aurrezte.
- Bitartean beste gauza batzuk egiteko aukera.
- Emaidza ikaragarriak lortuko dituzu eta honek dentistarengana joateko beharra murriztuko du.
- Garraiatzeko eroso da.
- Gauza berri bat izateak, bezeroak erakarri ditzake.
- Bakoitzaren gustura pertsonalizatu daiteke.

Gure produktua 10urtetik gorako pertsonentzat zuzenduta dago, gaztegoek hortzak oraindik ere garatu gabe dituztelako.

Diseinu ezberdinak egingo ditugu bezeroei eskaintzeko, eta aurrerantzean erosoan dutena izango da ekoiztuko duguna.

